



POSTA bidezko BOTOA



1. ESKAERA: gutun ziurtatu bidez eskatu behar da (gutun-azala irekita eraman behar da, postetxeko funtzionarioak sarrera egunaren datarekin zigilua jar dezan). Eskera egiteko epea zabalik dago eta bozketa-eguna baino 5 egun lehenago itxiko da, 2019ko maiatzaren 16an (eskaera egiteko eredia beherago jaitsi dezakezu).

Eskaerak helbide honetara bidaliko dira:

Hauteskunde mahai koordinatzailea
Unibertsitatez kanpoko irakasleak
Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabide zerbitzua
Santo Domingo, 8
31001 Iruña

2. DOKUMENTAZIOA: mahaiak eskatzailea erroldan dagoela egiaztatuko du eta ondoren, gutun ziurtatu bidez, boto-txartelak bidaliko dizkio, baita botoa sartzeko gutun-azala ere. Gutunazalean argi eta garbi agertu beharko da idatzia "Hauteskunde sindikalak 2019 - Posta bidezko boto eskaera".

3. BOZKETA: Hautesleak jaso duen gutun-azalean sartu beharko du bozkatu nahi duen sindikatuaren txartela. Gero, gutun-azala itxi behar da. Gutun-azal hori, ondoren, gutun-azal handiago batean sartu behar da, NANaren fotokopiarekin batera. Gutun-azal hori berriz ere goian aipatutako helbidera bidaliko du, gutun ziurtatuaren bidez. Gutunazal honetan argi agertu beharko da "Hauteskunde sindikalak 2019 - Posta bidezko botoa" eta bozkatzailearen izen-abizenak, hala ezean, botoa baliogabea izanen baita.

4. Hauteskunde-mahai koordinatzaileak gutun-azala jasotzen duenean bozka emaileari dagokion hautesmahai partzialeko idazkariari helaraziko dio, eta idazkariak gordeko du, bozketa-egunera arte, ireki gabe.

5. Bozketaren egunaren amaieran, idazkariak jasotako gutun-azal guztiak emango dizkio mahaiburuari.

6. Mahaiburuak gutun-azal guztiak irekiko ditu, hauteslea identifikatu, eta txartela kutxan sartu.

7. Botoak zenbatuko dira.

DOKUMENTAZIOA DESKARGATZEKO ESTEKAK

- [Bozkatzaileen zentsua.](#)
- [Bozka emailearen izenean posta bidezko bozka emateko eredia.](#)
- [Baimendutako beste pertsona batek posta bidezko bozka emateko eredia.](#)

Oharrak:

- Botoa zenbaketa egin ondoren iristen bada, ez da zenbatuko, eta ireki gabe suntsituko da gutun-azala. Mahaiak hala izan dela adieraziko du.
- Langile batek posta bidezko botoa eskatu badu, baina bozketa egunean aurrez aurre bozkatu nahiko balu, horretarako eskubidea izango luke. Horretarako, mahaiaren egoera azaldu beharko du, eta mahaiak posta bidez jaso duen botoa deuseztuko du.
- Tamalez, eta **STEILAS**en irizpidearen aurka, posta bidezko bozka beste pertsona batengan delegatu daiteke notario-ahalorde batekin edota notarioaren sinadura egiaztatze baimen batekin.
- Posta bidezko bozkaren tramitazioa asko luzatu ohi da, honengatik, lehenbailehen egitea gomendatzen dugu, hala erabakiz gero.

